

Ikaslearen identifikazioa

Identificación del alumno/a

.....
.....
.....


HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA: EUSKARA

Entzumena Irakurmena

Lehen Hezkuntzako 3. maila

PROBA EZAGUTZEKO EREDUA

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA



ISEI • IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ENTZUMENA ETA IRAKURMENA: EUSKARA

JARRAIBIDEAK

Proba honek bi atal ditu: entzumena eta irakurmena.

Saiatu erantzuten galdera guztiei ahal duzun hoberen. Galdera baten erantzuna ez badakizu, utzi eta joan hurrengora. Bukatzen duzunean, astirik baldin badaukazu, erantzun gabe utzi dituzun galderetara itzul zaitezke.

Galderetan lau aukera izango dituzu eta, erantzuteko, egokia den hizkia borobildu behar duzu.

Galdera bat erantzun ondoren okertu zarela uste baduzu, soilik markatu behar duzu zure ustez egokia den erantzun berria.

Praktika dezakezu honako adibidearen bidez:

00

L3UE0000

Asteak zenbat egun dauzka?

- A. 2 egun.
- B. 4 egun.
- C. 7 egun.
- D. 10 egun.

EUSKARA: ENTZUMENA

Orain bi audio entzun behar dituzu eta ondoren galdera batzuei erantzungo diezu.

Audioak bi aldiz entzungo dituzu.


Grabazioa entzuten duzun bitartean, galderei erantzun behar diezu.

Galdera baten erantzuna ez badakizu, utzi eta joan hurrengora.

Ez hasi proba egiten oraindik.

Lehenengo audioa: **SARA**

Hemendik aurrera, eta audioa entzun aurretik, galderak irakurri behar dituzu. Arretaz irakurri, oso garrantzitsua baita jarduera ondo egiteko.



Orain lehenengo audioa bi aldiz entzungo duzu.

Entzun eta, aldi berean, erantzuna aukeratu.

SARA

Audioa entzun eta 01- 07 galderei erantzun.

01

L3UE0313

Zer gertatzen zaio neskari?

- A. Kolean gelditu nahi duela.
- B. Ez duela eskolara joan nahi.
- C. Eskolako ikasleak bihurriak direla.
- D. Eskolan janari txarra jartzen dutela.

02

L3UE0311

Nortzuk ari dira hitz egiten?

- A. Sara eta bere ama.
- B. Ama eta andereñoa.
- C. Neska bat eta bere ama.
- D. Neska bat eta andereñoa.

03

L3UE0314

Neska nola sentitzen da eskolatik bueltatzean?

- A. Triste.
- B. Pozik.
- C. Urduri.
- D. Haserre.

04

L3UE0315

Ikastetxean, zerk poztu du gehien neska?

- A. Bazkariak.
- B. Lagun berriak.
- C. Txikiena ez izateak.
- D. Ama bere bila joateak.

05

L3UE0316

Nor da Sara?

- A. Neskaren ama.
- B. Auzoko neska bat.
- C. Amaren lehengusina.
- D. Eskolako lagun berria.

06

L3UE0317

Noiz gertatu da elkarrizketa hau?

- A. Kurtso hasieran.
- B. Kurtso amaieran.
- C. Gabonetako oporretan.
- D. Aste Santuko oporretan.

07


L3UE0318

Entzun duzun grabazioa, zer da?

- A. Ipuin bat.
- B. Azalpen bat.
- C. Asmakizun bat.
- D. Elkarrizketa bat.

Bigarren audioa: **GARRAIOAK**

Bigarren audioa entzun aurretik, galderak irakurri behar dituzu. Irakurri mesedez hurrengo galderak.



Orain, bigarren audioa bi aldiz entzungo duzu.

Grabazioa entzuten duzun bitartean, galderei erantzun behar diezu.

GARRAIOAK

Audioa entzun eta 08-14 galderei erantzun

08 Abestian zer erosten dira?

L3UE0111

- A. Bideak.
- B. Lagunak.
- C. Jostailuak.
- D. Garraioak.

09**Abestiaren garraioak nolakoak dira?**

L3UE0112

- A. Airekoak.
- B. Itsasokoak.
- C. Lurrekoak.
- D. Espazialak.


10**Aipatzen diren garraioek zer dute antzeko?**

L3UE0113

- A. Oinak.
- B. Motorra.
- C. Hegalak.
- D. Gurpilak.

11**Zein garraio puskatu da?**

L3UE0114

**12****Zein da kanta honen ideia nagusia?**

L3UE0116

- A. Oinez ibiltzea seguruena da.
- B. Makuluek asko irauten dute.
- C. Erositako jostailuak beti apurtzen dira.
- D. Kotxeek, bizikletek... ez dute irauten, lagunak, ordea, luzarorako dira.

13

L3UE0117

Hitz batzuk behin eta berriz errepikatzen dira, zergatik?

- A. Egia delako.
- B. Kantariak nahi duelako.
- C. Abestiari erritmoa emateko.
- D. Abestiaren egileak ez duelako ezagutzen sinonimorik.

14

L3UE0118

Zertarako asmatu dute abesti hau?

- A. Aholkuak emateko.
- B. Gidatzen irakasteko.
- C. Herriko jaietan abesteko.
- D. Garraioak ikasten laguntzeko.

EUSKARA: IRAKURMENA

Hemendik aurrera testu batzuk irakurriko dituzu eta ondoren galdera batzuei erantzungo diezu.

Ondorengo testua irakurri eta 15-20 galderei erantzun

INUITAK

MUNDUAREN IPARRALDEAN,
MUNDUKO TOKIRIK HOTZENETAN
INUITAK BIZI DIRA



Alaskako, Kanadako eta Groenlandiako iparraldea da eskimalen edo inuiten lurraldea.

Eskimal izena oso ezaguna da, baina haiek ez dute erabiltzen, iraingarria delako. Eskimal hitzak “haragi gordin jalea” esan nahi du. Horregatik ez dute izen hori onartzen. Haiek, inuit “herria edo jendea” izena gustuko dute.

Inuitak milaka urtean bizi izan dira Artikoan eta izotzean bizimodua jasateko gaitasun handia eta ezaugarri bereziak dituzte: neurriz, txikiak dira. Gorputz sendoak eta indartsuak dituzte, gorputzeko beroa hobeto mantentzeko. Beso eta hanka motzak, ile beltza, azal iluna eta begi urratuak dituzte. Betileak ere sendoak dira, begiak izotzean islatzen den argitasunetik babesteko. Hala ere, batzuetan, eguzki izpietatik babesteko zulo estua eta txikia duen marfilezko karatula moduko bat erabiltzen dute.

Karramarro aldizkaria 38 zk. (moldatua)

15

L3UE0411

Munduko zein lekutan bizi dira Inuitak?

- A. Ekialdean.
- B. Iparraldean.
- C. Hegoaldean.
- D. Mendebaldean.

16

L3UE0412

Zergatik ez zaie gustatzen eskimalak deitzea?

- A. Hitz itsusia delako.
- B. Beldurra eragiten dielako.
- C. Minduta sentitzen direlako.
- D. Haragirik jaten ez dutelako.

17

L3UE0413

Nolakoak dira inuitak?

- A. Altuak eta argalak.
- B. Baxuak eta argalak.
- C. Altuak eta sendoak.
- D. Baxuak eta sendoak.

18

L3UE0414

Nola babesten dituzte begiak eguzki izpietatik?

- A. Betile lodiekin.
- B. Bekain oso iletsuekin.
- C. Gauzez bakarrik irteten.
- D. Eguzkitako kapelarekin.

19

L3UE0415

Zein da testuaren ideia garrantzitsuena?

- A. Inuitak Alaskan bizi dira.
- B. Poloan Inuitak bakarrik bizi dira.
- C. Gizakia edozein tokitan bizi daiteke.
- D. Inuitak poloan bizitzeko gorputza egokituta daukate.

20

L3UE0416

Testu hau zertarako idatzi dute?

- A. Istorio bat kontatzeko.
- B. Informazioa emateko.
- C. Irakurleak dibertitzeko.
- D. Idazlearen iritzia emateko.

Ondorengo testua irakurri eta 21-27 galderei erantzun.

Izar eskola

Iruñeko planetariumera!

Orain motxila hartu eta Euskal
Herriko leku kosmikoenetako
batera joango gara!



GURE TXANGORAKO JAKIN BEHARREKO DATU BATZUK

Helbidea

S. Ramirez kalea, z/g
Yamaguchi parkea
Iruñea
Nafarroa

Telefonoa

948 262 628

Prezioak

Izarren Proiekzioa

Nagusiak 3,65 €

Haurrak 2,70 €

Ordutegia

Astegunetan:

9:30-13:30/16:00-19:30

Astelehenetan itxita

Larunbatetan:

9:30-13:30/17:00-20:30

Igandeetan eta jai egunetan:

11:30 -13:30

1993ko azaroan Planetarium honek
ateak ireki zituen, eta ordutik hona
jendearen interesa nabaria izan da.
Gazte asko hurbiltzen da Unibertsoak
bere barnean ezkutatzen dituen
sekretuak argitu nahian.

Hemen, planetak, izarrak, konstelazioen zein
galaxien azalpenak jasoko ditugu, gero
proiekzioetan zein den zein ondo jakiteko.

Unibertsoaren ezagupenekin loturiko gai
interesgarriak aurkituko ditugu, eskaintza
desberdinetan bilduta, 15 guztira.



Karramarro aldizkaria 1 zk. (moldatua)

21

L3UE0421

“Izar eskola” tituluak zer adierazten du?

- A. Izarrak eskolan.
- B. Iruñeko eskola bat.
- C. Eskoletarako programa bat.
- D. Izarrei buruz ikasteko saioak.

22

L3UE0422

“Izarren proiektzioa” jarduerak zer prezio du?

- A. 6,30€
- B. Doakoa da.
- C. 2€ eta 3€ artekoa.
- D. 4€ baino gutxiago.

23

L3UE0423

Zein egunetan zabaltzen dute Planetariuma arratsaldez?

- A. Zazpi egun astean.
- B. Astegunetan bakarrik.
- C. Asteartetik larunbatera.
- D. Igandeetan eta jai egunetan.

24

L3UE0424

Zeintzuk dira testuaren bi atal nagusiak?

- A. Irudiak eta koadroa.
- B. Irudiak eta informazioa.
- C. Datu praktikoak eta istorio laburra.
- D. Datu praktikoak eta informazio orokorra.

25

L3UE0426

Norentzat idatzi dute testu hau?

- A. Gazteentzat.
- B. Jende nagusiarentzat.
- C. Iruñeko biztanleentzat.
- D. Nafarroako irakasleentzat.

26

L3UE0427

Zein da testu honen ideia nagusia?

- A. Planetariuma 1993tik zabalik dago.
- B. Planetariumera gazteak joaten dira.
- C. Planetariumean Unibertsoari buruzko gai askoren berri emango digute.
- D. Planetariumean izarren eta planeten marrazkiak egiten irakasten digute.

27


L3UE0428

Zu jaio zinen urtean joan ahal zen Iruñeko Planetariumera?

BAI EZ

Ondorengo testua irakurri eta 28-31 galderei erantzun**GARMENDIA ETA ZALDUN BELTZA**

Atzetik inor ez zuela jabetu zenean, Garmendiak mantsotu egin zuen zaldiaren abiada eta lasai ekin zion mendian gorako bideari. Hiru egunez izan zituen atzetik Harry Garbi-ren morroiak. Arima ahoan zuela ekin zion ihesari Wilde Rose-ko senar-emazteen hilketa berari egotzi ziotenean, eta zalantza gabe ezkutalekurik hoberena aukeratu zuen: basamortu ondoko mendiak.



Izan ere, haren esku ahurra bezain ongi ezagutzen zituen paraje haiek, ez zituen urteak alferrik igaro hantxe ardiak zaintzen. Salbu izango zen han.

Ilundu baino lehen bildu zituen adarrak eta adaxkak eta txabola egiten hasi zen. Garai bateko artzainen ohiturari jarraituz egin zuela txabola. Hankak jarri zizkion, lurretik metro batera igo zuen, kriskitin-sugeen erasoetatik libre izateko.

Bere buruaz ziur, etxola barruan sartu zen. Neka-neka eginda zegoen eta berehala hartu zuen loak.

Gilda txabola kanpoan geratu zen, zelatan.

Garmendia eta zaldun beltza

Kirmen Uribe

Elkar

28

L4EE0315

Duela zenbat egun egin zuen Garmendiak ihes?

- A. Hiru.
- B. Lau.
- C. Aste bete.
- D. Egun bat.

29



L4EE0316

Ihesi doa Garmendia, zergatik?

- A. Indioak bere atzetik doaz eta.
- B. Basamortuan ezkutatu behar duelako.
- C. Harry Garbiren morroiak atzetik dituelako.
- D. Hiru egunez txabolan ezkutaturik egon delako.

30

L4EE0319

Irudi hauetatik zeinek du Garmendiak eraiki duen babeslekuaren antza?**31**

L4EE0322

Zein da testuak kontatzen duen ideiarik inportanteena?

- A. Mendian txabola egin duela.
- B. Garmendiak hiltzaile batzuei jarraitzen die.
- C. Deskribatu egiten du nolakoa den Garmendia.
- D. Garmendiak ihes egin zuen batzuek hiltzailea zela esan zutelako.

ESKERRIK ASKO ZURE LANAGATIK